

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<p>Titulazioa: ERIZAINZAKO GRADUA</p> <p>Irakasgaia: Erizaintzako Atentzioa Larrialdi eta Emergentsietan.</p>	<p>Mota: Aukerakoa</p> <p>Eskolen kronograma: 2. Lauhilekoa</p>
<p>Kodea: 27967</p>	<p>Hizkuntza: Euskara/Gaztelania</p>
<p>Irakasgaiaren deskribapena</p> <p>Irakasgai honen ardatza aurkezpen akutuko osasun-arazoak dituzten pertsonen eman beharreko erizaintzako arreta da, pertsonentzat bizi-larrialdia suposatzen dutenak eta konpontzeko erizaintzaren parte-hartze premia eta lehenetsia behar dutenak. Behar diren erizaintza-gaitasunak garatzen dira, larrialdi eta emergentziako egoerei aurre egiteko.</p>	<p>ECTS kredituak: 4,5</p> <p>Kurtsoa: 3. Maila</p>
<p>Sartzeko eskakizunak /gomendioak</p> <p>Erizaintza Klinikoa I, Erizaintza Klinikoa II, Erizaintza Klinikoa III eta Erizaintza Klinikoa IV irakasgaiak</p>	

IRAKASLEAK

Tfnoa

e-maila

Irakasgaiaren arduraduna	Tfnoa	e-maila
<p>Yolanda López de Audícana Jiménez de Aberásturi</p>	945 219000	<p>yolanda_lopezdeaudicana@ehu.eus yolanda.lopezdeaudicanajimenezdeaberasturi@osakidetza.eus</p>
<p>Euskarazko lerroko irakasleak</p> <p>Yolanda López de Audícana Jiménez de Aberásturi</p>	945 219000	<p>yolanda_lopezdeaudicana@ehu.eus yolanda.lopezdeaudicanajimenezdeaberasturi@osakidetza.eus</p>

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Aztertzen diren egoera kritiko desberdinetan, erizaintzako balorazioko oinarrizko printzipioak identifikatzea, ezagutza fisiopatologikoak elkarrekin lotuz, zaindu beharreko faktoreak identifikatzeari begira
- G2. Bizi-larritasuneko prozesu batean erabili beharreko trebetasunak garatzea, segurtasun klinikoan eta ebidentzia zientifikoan oinarriturik, erizaintzako jarduera azkarra eta segurua bermatzeko
- G3. Larrialdietako eta emergentsietako egoeretan erabilitako farmakoak erabiltzean jarraibideei buruz badakiela eta trebetasuna duela erakustea
- G4. Larrialdietako eta emergentsietako talde batean lan koordinatua egiteko ezagutzak eta gaitasunak lortzea.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1: Euskal Autonomia Erkidegoko emergentzietako sistemaren eta ospitale barneko triaje-sistemen antolamendua ezagutzen du
- IE2: Pazienteek heriotza-arriskua izan dezaketen egoera klinikoak identifikatzen ditu (arnasbidea eta arnas ezegonkortasuna, ezegonkortasun hemodinamikoa, disfuntzio neurologikoak, erredura larriak dituen gaixoa, intoxikazioak...)
- IE3: Egoera horietan aplikatu daitezkeen erizaintzako zainketak argudiatzen ditu
- IE4: Arnas ezegonkortasuna duten pertsonak artatzean erabili beharreko gaitasun simulatua eta ezaguera erakusten du (arnasbide bat irekita mantentzea, arnasbidea isolatzeko gailuak eta aireztatze inbaditzailea/ ez-inbaditzailea), eta ezegonkortasun hemodinamikoa duten pertsonena, ezegonkortasun hemodinamiko larria eta geldialdi ingurukoa, eskuzko desfibriladorea, Bizi Euskarri Aurretatua (BEA) aurreratuko algoritmoak
- IE5: Larrialdian eta emergentzian erabilitako farmako garrantzitsuenen egokiespena eta horiek emateko bidea ezagutzen du
- IE6: Kasu kliniko simulatu bat ebazteko gaitasuna erakusten du, lehentasunak identifikatuz, behar bezalako hurrenkera erabiliz, beharrezko tekniken eta taldearen antolamenduaren simulazioa erabiliz.
- IE7: Trebetasuna deskribatzen du eta erakusten du politraumatizatutako paziente baten (PLT) jardueran, hasierako balorazioan eta bigarreanean, lehentasunak eta hurrenkera zuzena identifikatuz
- IE8: Inpaktu handiko energiak eragindako lesioak, ospitalez kanpoko triajeak eta biktima anitzeko gertaeretan lantalde sanitarioaren jokaerak ezagutzen ditu

EDUKIAK

I. UNITATEA.

Larrialdietako eta emergentzietako zerbitzuen egitura eta antolamendua. Ospitalez kanpoko/ospitale barneko larrialdia: hastapenak. Biziraupen-katea, Triagea.

1. Tailerra: Ospitale barneko Triage-programa aplikatzea kasu kliniko teorikoen bidez.

II. UNITATEA.

ARNAS LARRIALDIA duen pazientearen zainketak. Arnasbideko monitorizazio-prozedurak eta hura erabiltzeko gailuak. Farmakoak arnas larrialdietan.

2. Tailerra: Erizaintzako jarduera arnasbideen erabileran / aireztapena.

III. UNITATEA.

LARRIALDI HEMODINAMIKOA duen pazientearen zainketak eta monitorizazioa. Monitorizazio hemodinamikoaren prozedurak eta BBB aurreratuko gailuak. Farmakoak larrialdi hemodinamiko batean.

3. Tailerra: Hezur barneko biaren teknika

IV. UNITATEA.

LARRIALDI NEUROLOGIKOA duen pazientearen zainketak. Garezur-barneko hipertentsioa duen pazienteari eman beharreko arreta. Farmakoak larrialdi neurologiko batean.

V. UNITATEA.

ERREDURA LARRIAK duen pazientearen zainketak. Pazientearen arreta ospitalaratzean, aldi hipobolemikoan eta diuretikoan.

VI. UNITATEA.

LARRIALDI TRAUMATOLOGIKOA duen pazienteari egin beharreko zainketak. Advanced Trauma Life Support® (ATLS). Minaren kudeaketa.

VII. UNITATEA.

Paziente intoxikatuaren zainketak. Toxikoa desagerrarazteko mekanismoak. Nola jokatu toxiko espezifikoaren aurrean.

VIII. UNITATEA.

Erizainaren jarduera ospitaleaz kanpoko esparruan. Inpaktu handiko gertakariak. Biktima anitzeko gertaerak (BAG), ospitaleaz kanpoko triajea.

4. Tailerra Emergencietako sistemaren gailuen aurkezpena ospitaleaz kanpoko esparruan

IX. UNITATEA.

Larrialdietako eta emergencietako egoeretan kasu klinikoak simulatzea

Mintegia: Kasu klinikoaren simulazio teorikoa eta Debriefing.

5. Tailerra: Kasu klinikoaren simulazio praktikoa ospitale birtualean

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	TAILER-ORDUAK
I,II,III,IV,V,VI, VIII, IX	Yolanda López de Audicana	14	6	4
I,II	AOUko Larrialdi zerbitzua	0	0	2
VIII	AOUko ZIUko ekipoa	0	0	6
VIII ,IX	Osakidetzako emergentzia ekipoa	6	0	
GUZTIRA		20	6	12

Gelako ekintzetan talde osoan egingo diren simulazio aktibitateak egingo dira.

Tailerrak bi ordukoak izango dira, talde txikietan egingo dira, eta hauen programazioa (data, lekua eta ordua) eGelan argitaratuko da irakasgaiaren hasieran.

METODOLOGIA

- **Klase magistralak** egongo dira larrialdietako eta emergentzietako egoeretan dauden pazienteen zainketaren eduki teorikoei buruz; irakasleak ikaslearen parte-hartze aktiboa erraztuko du
- **Kasu Klinikoen simulazio-teorikoaren** gelako praktikak edo/eta taldekako eszenaratze simulatuta eta ondorengo horien debriefinga eginez landuta.
- **Simulazio klinikoko metodologia jarraituko duten** gelako praktikak egongo dira; horietan, ikasleek, talde txikietan, trebetasun teknikoei ekiten diete, larrialdi/emergentzia batean pazientea behar bezala artatzeko beharrezkoak.

AURREZ AURREKO LANA (38 ORDU)		
Klase magistrala	Mintegia	Tailerra
20	6	12

AURREZ AURREKOA EZ DEN LANA (74,5 ORDU)			GUZTIRA	
Ikasketa orduak	Bakarkako lana	Talde-lana	ECTS	
34	18,5	22	4,5	
			ORDUAK	112,5

EBALUAZIO-SISTEMA

Ikasleak, ebaluazio-proben bidez, edukien menperatze eta integratze teoriko-praktikoaren maila erakutsi ahal izango du. Horretarako, ikasleek jarraian aipatzen diren ebaluazio-jarduerak gainditu beharko dituzte.

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Gaitasunen ebaluazioa jarduera hauen bitartez egingo da:

GAITASUNAK	EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	KALIFIKAZIOA
G1,G2,G3	IE1,IE2,IE3,IE4,IE5,IE6,IE7	Mintegia	Taldeko lana: Kasu klinikoaren simulazio-teorikoa, rol plying-a eta debriefing-a	%25
G1,G2,G3,G4			Banakako proba: egoera klinikoaren garapen teorikoa	%20
G1,G2,G3,G4	IE1,IE2,IE3,IE4,IE5,IE6,IE7,IE8,IE9	Amaierako proba	Azterketa teorikoa (galderamotzak edo test motakoa)	%55

Irakasgaia gainditzeko bete beharreko baldintzak:

- Ikasleak **saio magistralen % 80 an eta tailer-mintegien % 100ean parte hartu** behar izan du, amaierako ebaluazio-probetara aurkeztu ahal izateko.
- Azken kalifikazioa eman ahal izateko, ebaluazio-jarduera guztiek **balio osoaren % 50a** gainditu behar dute gutxienez.
- Azterketa teorikoa test motakoa bada, oker erantzundako galderak zigortu egingo dira, galderaren balioaren % 25 kenduko da erantzun oker bakoitzeko, eta ekitaldiko azken notaren zenbaketan eragina izango du.

Garrantzitsua:

- Ebaluazio jarraituko aktibitateak ikasgaiaren kronograman zehaztuko dira eta hauek ikasleen eskura egongo da eGelan ikastaroaren hasieran.
- Mintegia ebaluaketa proban % 50 baino gehiagorekin** lortutako kalifikazioak mantenduko dira bi kasuetan; hau da, ikasleak azken ebaluazio-sistema hautatu eta baita ezohiko deialdian zehar ere.
- Amaierako idatzizko proba azterketa-irakasgaiaren amaiaeran egingo da.
- Indarrean dagoen ikasturtean irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek **ez dute nahita ez tailerretara joan beharrik izango hurrengo ikasturtea**. Baldintza hori **ikasturte bakar batean mantenduko da**.
- Deialdiari uko egiteak «Ez aurkeztuaren» kalifikazioa ekarriko du

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

- Ebaluazio jarraitua hasi duten ikasleen kasuan, deialdiari uko egin ahal izango diote, dagokien irakasgaia emateko epea bukatu baino gutxienez hilabete lehenago. Uko egite hori idatziz aurkeztu beharko diote irakasgaiaren irakasle arduradunari.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Gaitasunen ebaluazioa jarduera hauen bitartez egingo da:

GAITASUNAK	EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	KALIFIKAZIOA
G1,G2,G3	IE1,IE2,IE3,IE4,IE5,IE6	Mintegia	Taldeko lana: Kasu klinikoaren simulazio- teorikoa, rol plying-a eta debriefing-a	%25
G1,G2,G3,G4			Banakako proba: egoera klinikoaren garapen teorikoa	%20
G1,G2,G3,G4	IE1,IE2,IE3,IE4,IE5,IE6,IE7,IE8	Amaierako proba	Azterketa teorikoa (galderamotzak edo test motakoa)	%55

Irakasgaia gainditzeko bete beharreko baldintzak:

- Ikasleak tailer-mintegien **saio magistralen % 80 an eta tailer-mintegien % 100ean**, amaierako ebaluazio-probetara aurkeztu ahal izateko.
- Azken kalifikazioa eman ahal izateko, ebaluazioko jarduera guztietan haien balio osoaren % 50arekin gutxienez lortu behar da. Azterketa teorikoa test motakoa bada, oker erantzundako galderak zigortu egingo dira, galderaren balioaren % 25 kenduko da erantzun oker bakoitzeko, eta ekitaldiko azken notaren zenbaketan eragina izango du.
- Amaierako ebaluazio-sistema horretara sartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiteko idazki bat aurkeztuko du, irakasgaiaren ardura duten irakasleentzat, irakasgaiaren irakaskuntza-aldia amaitu baino hilabete lehenago.

Garrantzitsua:

- Amaierako idatzizko proba azterketa-irakasgaiaren amaiaeran egingo da.
- Ebaluazio jarraituko sisteman zehar **mintegietako ebaluazio-jardueran** %50etik gorako kalifikazioak lortu dituzten ikasleek lortutako puntuazioak mantenduko dituzte.
- Azterketara ez aurkezteak deialdian «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa dakar berekin.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Azken ebaluazio-sistemaren ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian 5 edo gehiagoko notarekin gainditutako ebaluazio-jardueren nota gordeko da.

TAILERRETARA JOATEKO NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Uniformea eta arauzko eskalapoiak.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- González Uriarte J. "PHTLS Soporte vital básico y avanzado en el trauma prehospitalario". 8ª Edición. Elsevier Mosby:España, S.L. ;2008
- Campbell JE, Alson RL. American College of Emergency Physicians. INTERNACIONAL, Trauma Life Support for Emergency Care Providers. 8ª Pearson.
- Colegio Americano de Cirujanos Comité de Trauma. Soporte Vital Avanzado en Trauma para Médicos. 8ª Edición.: Estados Unidos.;2008
- Manual de Ventilación en Urgencias y Emergencias Extrahospitalarias. SUMMA112. Abril; 2022.

Interneteko helbideak

- Sociedad Española de Enfermería de Urgencias y Emergencias: SEEUE. Página web <http://www.enfermeriadeurgencias.com>.
- Osanet: El portal de la Sanidad Vasca: <http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ghemer00/es>
- Recomendaciones ERC 2021. <https://www.urgenciasyemergen.com/actualizacion-erc-2021-nuevas-recomendaciones-rcp>
- Sociedad Española de Medicina Intensiva: Plan Nacional de RCP [http://www.semicyuc.org/temas/plan-nacional-rcp/el-plan-nacional-de-RCP.Recomendaciones sobre reanimación cardiopulmonar en pacientes con sospecha o infección confirmada por SARS-CoV-2 \(COVID-19\)](http://www.semicyuc.org/temas/plan-nacional-rcp/el-plan-nacional-de-RCP.Recomendaciones%20sobre%20reanimaci%C3%B3n%20cardiopulmonar%20en%20pacientes%20con%20sospecha%20o%20infecci%C3%B3n%20confirmada%20por%20SARS-CoV-2%20(COVID-19))
- Sociedad española de enfermería en cardiología. <http://www.enfermeriaencardiologia.com>
- Revista EMERGENCIAS: http://www.semes.org/revista_EMERGENCIAS.htm

OHARRAK

2024-25 ikasturteko ikasgaiaren hasieran, ikasleek honako dokumentu hauek eduki ahal izango dituzte egelan:

- Irakasgaiaren gida
- Ikasgaiaren kronograma zehatza
- Egin beharreko lantegi-taldeen zerrenda

TUTORIAK

Irakasgaiko irakasleekin egindako tutoretza-eskaerak posta elektronikoz izapidetu beharko dira yolanda_lopezdeaudicana@ehu.eus irakasgaiaren irakasle arduradunaren bidez, eta lehentasunez 3-4 ikasleko talde batentzat eskatuko dira. Ez daude aurrez aurreko klaseetara ez agertzea ordeztara bideratuta.